

# 9 Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Hogei urteko ibilbidearen azterketa

**J. Inazio Marko Juanikorena**

*EHU/UPV - Euskal Herriko Unibertsitatea*

inazio.marko@ehu.es

Sarrera-data: 2013-9-30 / Onartze-data: 2013-10-30

**Laburpena.** Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) erakundearen hogeigarren urteurrena iristear zela, mankomunitatearen arduradunek analisi eta gogoeta prozesu bat ireki nahi izan zuten UEMAren sorrera eta egindako ibilbidea aztertzeko eta etorkizunera proiektatzeko. Gogoetarako ikerketa prozesuaren prestaketa lanak 2008ko amaieran abiatu ziren. Eten baten ostean, 2010ean berriro proiektuari ekin eta prozesua martxan jarri zen, eta sistematizazioaren analisiak, talde fokalak, elkarrizketak, datu-bilketak eta datu-analisiak egin ostean, *Gogoeta Prozesuaren Memoria* izeneko txostena osatu eta aurkeztu zen 2011ko apirilean UEMAk antolaturiko *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* izeneko topaketan. Artikulu honetan UEMA burututako gogoetarako ikerketa prozesu horren helburuak, planteamendu metodologikoa eta azterketaren emaitza nagusiak azaltzen dira. • **Hitz-gakoak:** *erreisilentzia komunitarioa, komunitate sena, udalerri euskaldunak*

**Abstract.** When the Association of Basque-speaking Municipal Councils (UEMA) was nearing its 20th anniversary, the people in charge of the association wanted to open up an analysis and reflection process to examine the birth and road covered by the UEMA and to make future projections. The work to prepare the research process for reflection started at the end of 2008. After a break, the project was taken up once again in 2010 and the process was started, and after conducting systematization analyses, focus groups, interviews, data gathering and data analyses, the document entitled *Report on the Reflection Process* was produced and presented in April 2011 during the meeting on *Language Ecology and Basque Territories*. This article covers the aims, methodological approach and main results of the analysis of that research process for reflection carried out by the UEMA. • **Key words:** *community resilience, community instinct, Basque-speaking municipalities.*

## SARRERA

### I

UEMA - Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea 1991n sortu zen, soziolinguistikoki euskaldunak ziren udalerrriak elkartu eta horiei beren udal administrazioaren barne jardueran zein udalerriko gizarte bizitzan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuak eskaintzeko. Bere xedeari jarraikiz, mankomunitateak hainbat programa, zerbitzu eta ekinbide antolatu eta bideratu ditu urte guzti horietan.

Erakundearen hogeigarren urteurrena iristear zela, mankomunitatearen arduradunek analisi eta gogoeta prozesu bat ireki nahi izan zuten UEMAREN sorrera eta egindako ibilbidea aztertzeko eta etorkizunera proiektatzeko.

Gogoetarako ikerketa prozesuaren prestaketa lanak 2008ko amaieran abiatu ziren, baina tartean Iñaki Arregi UEMAKo koordinatzailea zenaren gaixotasun larria eta zorigaitzeko heriotza suertatu zen, eta horrek geldialdia sortu zuen. Gerora, 2010ean berriro proiektuari ekin eta prozesua martxan jarri zen, eta sistematizazioaren analisiak, taldefokalak, elkarrizketak, datu-bilketak eta datu-analisiak egin ostean, *Gogoeta Prozesuaren Memoria* izeneko txostena osatu eta aurkeztua izan zen 2011ko apirilean UEMAK antolaturiko *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* izeneko topaketan.

Artikulu honetan UEMA burututako gogoetarako ikerketa prozesu horren helburuak, planteamendu metodologikoa eta azterketaren emaitza nagusiak azaltzen dira.

## UEMAKO UDALERRIAK ERRESILIENTZIA KOMUNITARIOAREN ADIBIDE

Erresilientziaren kontzeptua zientziaren eta gizartearen arlo ezberdinetan erabili izan da, presiopeko egoera zailei aurre egiteko materialek edota subjektu indibidual zein kolektiboek duten gaitasun-ahalmena adierazteko.

Hitzaren lehen aplikazio zientifikoak fisikaren arloan aurki daitezke, materialek presioari eusteko eta malgutasunez bere hasierako forma berreskuratzeko izan dezaketen kalitateak izendatzeko (Fernandez eta Moran, 2012). Ondoren ekologiaren arloan aplikatzen hasi zen (Holling, 1973) aldaketan eta erasoan aurrean sistema ekologikoek bizirauteko izan dezaketen propietatea adierazteko. Psikologiara ere iritsi zen, egoera gogor edota traumatikoak pairatu ostean egoera horiek gainditu eta emozionalki be-

---

**UEMA - Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea 1991n sortu zen, soziolinguistikoki euskaldunak ziren udalerrriak elkartu eta horiei beren udal administrazioaren barne jardueran zein udalerriko gizarte bizitzan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuak eskaintzeko. Bere xedeari jarraikiz, mankomunitateak hainbat programa, zerbitzu eta ekinbide antolatu eta bideratu ditu urte guzti horietan.**

**Erresilientziaren kontzeptua zientziaren eta gizartearen arlo ezberdinetan erabili izan da, presiopeko egoera zailei aurre egiteko materialek edota subjektu indibidual zein kolektiboez duten gaitasun-ahalmena adierazteko.**

regiteko pertsona batzuk duten ahalmena azaltzeko (Bowlby, 1992; Theis, 2003). Azkenik, erresilientziaren kontzeptua arlo sozialera edota komunitariora ere hedatu da, eta Adger-ek (2000) azaltzen duen moduan gizarte erresilientziak komunitateek euren azpiegitura sozialean pairatzen dituzten kanpoko txokeak jasateko duten trebetasuna azaltzen du.

Erresilientzia komunitarioa —edo soziokulturala— Hegoamerikan du bere jatorri nagusia (Suarez Ojeda, 2001). Erresilientziaren kontzeptualizazio mota honen baitan oinarritzeko hiru elementu agertzen dira: txoke-egoera, egokitzapen positiboa eta prozesu dinamikoa (Simpson, 2010). Ikuspegi honen arabera, ez da soilik desestrukturazioa edo galera ekarri duen kanpoko gertaerari aurre egitea, baizik eta egoera horren gain dinamikoki eraikitzeke ahalmena ere edukitzea. Zentzu horretan, erresilientea den komunitate baten ezaugarrietako batzuk hauek lirateke: autoestimu kolektiboa, komunitate sena, identitate kulturala, gizarte-umorea, lidergo parte-hartzaileak sortzeko gaitasuna, solidaritatea, ...

Horiek horrela, UEMAn elkartu diren udalerrri euskaldunek osatzen duten komunitatea, komunitate erresiliente gisa kontsidera dezakegu, kontzeptu horiek biltzen dituen esanahi eta ezaugarriak bereganatzen baititu. Hau da, hizkuntza eta nortasun propioa duten herri-komunitate egituratuak dira, hizkuntza horren egituraketa soziala oztopatu edota desegituratze arriskuan jarri duen kanpoko gertaerak bizi izan dituzte, ondoren horretaz jabetu eta egoerari aurre egiteko prozesu dinamikoak bultzatu dituzte errealitate berriak eraikitzeke. Zentzu horretan, erresilientzia komunitarioaren ikuspuntutik azter daitezkeen errealitate eta prozesuak dira.

## 1. IKERKETAREN HELBURUA ETA PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

I

Aipatu moduan, ikerketa-lan honek UEMAn sorrera eta egindako ibilbidea aztertzeke abiatu nahi izan zen gogoeta prozesuari erantzuten dio. Hori horrela, lanaren xede nagusi gisa finkatu zen helburua honako hau izan zen:

- UEMAn izatea fundamentatzen duten indar-ideiak berreraikitzea eta bere etorkizuneko estrategia proiektatzeko oinarriak ipintzea.

Helburua garatzeko, azterketa hiru tempus edota planotan dimentsionatzea planteatu zen: a) *UEMAk izan nahi zuena*, b) *UEMA izan dena*, eta c) *UEMAk izan nahi duena*.

Azterketa bideratzeko erabili zen metodologia enfoketako kualitatiboan oinarritutakoa izan zen. Analisiaren ardatza *Esperientzien Sistematizazioa* deitzen den metodologiaren aplikazioa izan zen. Eman ziren urratsak eta plano bakoitzean erabili ziren teknikak, berriz, ondoko hauek izan ziren:

a) UEMAK izan nahi zuena:

1. Analisi dokumentala. UEMAREN sorrera argumentatu, justifikatu, eztabaidatu, erregistratu eta argitaratu zituzten dokumentuak bildu eta aztertu ziren.
2. Talde fokala. Hasierako bultzagile zenbaitekin. UEMAREN sorrerako testuingurua, proiektuaren zergatiak, hasierako asmoak, izandako eztabaidak eta planteatutako diskurtso eta helburuak jasotzeko eta berrinterpretatzeko. Protagonisten narrazioan azaldutako indar-ideiak identifikatu eta kategorizatu ziren.
3. Elkarrizketak. Talde-eztabaidan parte hartzerik izan ez zuen beste hainbat protagonistarekin, elkarrizketa erdi-egituratuak analisisan sakontzeko eta indar-ideien kategoriak osatzeko.

b) UEMA izan dena:

4. Ibilbidearen sistematizazioa. Bulego teknikoan aritutako teknikariek. Gertaera edo ekinbide nagusiak jaso, testuinguruaren bilakaeraren berreraikuntza egin, ibilbidearen etapa nagusiak identifikatu, etapa nagusi bakoitzeko protagonistak identifikatu eta emaitzak bildu ziren. Eta hori guztia Sistematizazioaren Mapan jaso zen.
5. Galdetegia. UEMAREN urteetako ibilbidean protagonista izan den hainbat pertsonari pasa zitzaion: protagonista zuzenak (alkate eta zinegotziak) eta testuinguruko protagonistak (instituzioetako euskara arduradunak, euskalgintza, alderdietako arduradunak...).
6. Talde fokala. UEMAKO zuzendaritzako egungo protagonista zuzenekin, aurreko fasean identifikatutako galdera gakoetara erantzuna emanaz sistematizazioa borobiltzeko, bidean ikasitakoa jasotzeko, eta, etorkizuneko planteamendu teoriko-praktikoaren oinarrian egon zitezkeen ideia-giltzak, indar-gakoak eta aspektu kritikoak identifikatzeko.

c) UEMAK izan nahi duena:

7. Talde fokala. Teknikariek eta zuzendaritzako eragile zuzenekin, aurretik jasotako ideia-giltzak, indar-gakoak eta aspektu kritikoaren inguruan eztabaidatzeko eta UEMAREN etorkizuneko proiektioari buruzko hausnarketa estrategikoaren oinarriak finkatzeko.

**Zentzu horretan,  
erresilientea den  
komunitate baten  
ezaugarrietako  
batzuk hauek  
lirateke:  
autoestimua,  
kolektiboa,  
komunitate sena,  
identitate  
kulturala,  
gizarte-umorea,  
lidergo parte-  
hartzaileak  
sortzeko  
gaitasuna,  
solidaritatea...**

**Horiek horrela,  
UEMAN elkartu  
diren udalerri  
euskaldunek  
osatzen duten  
komunitatea,  
komunitate  
erresiliente gisa  
kontsidera  
dezakegu,  
kontzeptu horiek  
biltzen dituen  
esanahi eta  
ezaugarriak  
bereganatzen  
baititu.**

**Helburua  
garatzeko,  
azterketa hiru  
tempus edota  
planotan  
dimentsionatzea  
planteatu zen: a)  
UEMAk izan  
nahi zuena, b)  
UEMA izan  
dena, eta c)  
UEMAk izan  
nahi duena.**

## 1.1 Esperientzien Sistematizazioa: praktika soziala berreraikitzeko metodologia

Esperientzien sistematizazioa gizarte-ikerkuntzarako metodologia bat da, Hego Ameriketako herri-hezkuntzaren eta gizarte garapenerako mugimenduen inguruan 70eko hamarkadan sortu zena praktika sozialen kualifikaziorako hausnarketa teorikoak artikulatzen laguntzeko (Estrada, 2005). Bere sorrera hainbat gobernu kanpoko erakundek burututako esperientzietatik eratorritako arazo, zailtasun eta aukerekin lotuta agertzen bada ere, 80/90. hamarkadetatik aurrera bere kontzeptualizazioa garatuz joan zen, arlo akademikoan gero eta gehiago txertatuz eta gizarte-ikerkuntzarako estrategia metodologiko gisa indartuz. Sistematizazioaren metodologiak garapen handia izan zuen Latinoamerikan urte horietan eta harreman estuak izan zituen ekintza-ikerkuntza parte-hartzailearen metodologiarekin edota gizarte laneko unibertsitate eskolekin (Alboan, 2004; Jara, 2006).

Sistematizazioa zer den definitzerakoan azpimarratzen diren ideia nagusien artean ondoko hauek daude: sistematizazioa hausnarketa kritikoan oinarritzen da, prozesu ordenatua da, esperientzia jakin baten berreraikuntza inplikatzeko du, eta, ezagutzaren sorrera ahalbideratzen du (PESA, 2004). Sistematizazioaren xedea, beraz, bizi izandako esperientziaren barne logika ulertzea heldzea eta horren inguruan ezaguera berri eta baliotsuak lortzea izango da (Alboan, 2004). Zentzu horretan, sistematizazioarekin bilatzen dena zera da: *“Burututakoa neurtzea, martxan jarritako proiektuen gaineko oroimena berreskuratzea, emaitzak eta puntu kritikoak analizatzea, prozesu konkretuak analizatzea testuinguru zabalago baten barruan, praktikatik ikastea, ezaguera berri horiek sortzea praktikatik bertatik, praktikak hobetzea...”* (Alboan, 2004: 21)

Esperientzien sistematizazioak burutzeko metodologikoki kasuan kasura egokitu behar bada ere, badira kontuan hartzeko pautak edo jarraibide orokor batzuk. Oro har planteatuta, esperientzia baten sistematizazioa burutzeko jarraituko diren urrats nagusiak honako hauek izango dira (Bickel, 2006; Borjas, 2003; Coppens eta Van de Velde, 2005; Nina, 2006): 1) egin nahi den sistematizazioaren xedea definitu, 2) Sistematizazioaren ardatza zehaztu, lortu nahi den ezagutza adieraziko duen galdera gakoa planteatu, 3) esperientziaren berreraikuntzarako jarraituko den eskema edo formatua finkatu, 4) finkatutako ardatza eta eskema jarraituz esperientzian bizi izandako etapa nagusiak identifikatu, datuak bildu eta ordenatu eta prozesuaren historia berreraiki, 5) esperientziaren analisisa eta interpretazioa egin, faktore giltzarriak ulertzen saiatu eta esperientziaren barneko logika argitu, eta, 6) egindako analisi eta interpretazioetatik eratorritako ondorioak landu eta zabaltu.

## 2. EMAITZAK: HOGEI URTEKO HISTORIAREN SISTEMATIZAZIOA

### 2.1 UEMAren Sorrera

UEMA, jakina denez, 1991n eratu zen ofizialki, Aizarnazabalen burututako batzarrean. Baina UEMA sortzera bultzatu zuen mugimendua 3 urte lehenago hasi zen, 1988an. Urte horretan Euskal Herrian Euskaraz erakundeak kanpaina bat abiatu zuen udal elebakarren alde, mozio bat aurkeztuz udalerrri euskaldunetako udaletan. Mozioa onartu zuten hainbat udalek elkarren artean koordinatzen hasi ziren eta mozioan esaten zirenak abian jartzeko lehen urratsak ematen. Lan guzti horren ondorioz, esan bezala, sortu UEMA-Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea.

UEMAko sorreran garaiko gizarte-mugimendu eta udaletako ordezkari gisa zuzenean inplikatuak egon ziren hasierako hainbat protagonistarekin egindako talde-elkarrizketan jasotakoaren arabera, horrela interpreta daiteke UEMA bezalako erakunde baten sorrera (eraketa, jasokundea, ...) ezaugarritu eta eragin zuten testuinguru soziolinguistikoa eta erakunde horren beraren zentzua eta funtzioa.

*Testuinguru soziolinguistikoa.* Laurogeigarren hamarkadan hizkuntzen egoerak Euskal Herriko lurraldean euskararen galbiderako desoreka-egoera argia erakusten zuen ("*oraindik ere gainbehera doa gure hizkuntza...*"). Euskara, berezko hizkuntza bada ere, oraindik menpeko agertzen da, ordezkaturia eta minorizaturia; erdara, berriz, hizkuntza hegemonikoaren posizioa eta funtzio nagusiak bereganatuak ditu.

Hala ere, urte horiek euskararen aldeko dinamiken loratzearen urteak dira. Euskararen berreskuratze-prozesuak gorpuztu eta areagotzen dira hainbat arlo nagusitan, ekimen egituratu eta esanguratsuen bidez. Euskararen aldeko gizarte mugimenduak jardun zabala eta eragilea erakusten du; administrazioan euskara sustatzeko azpiegiturak, politikak eta programak areagotzen dira; euskararen babeserako lege eta araudiak idazten dira. Eta gizartean euskararen premiaren sentimendua eta aldeko giro zabala nagusitzen da ("*..momentu horietan, Franco hil osteko urteetan, sortu huan giro indartsu bat euskararen aldekoa, neurri batean kontentzimendua bai, baina beharra ere bai, .. Eta gure hasierako urte haietan jendeak oraindikan bazeukan*").

Testuinguru zabal horretan bazeuden Euskal Herrian errealitate partikular batzuk, baziren udal lurralde batzuk biziki euskaldunak zirenak. Udalerrri euskaldun horietan euskarak berezko egoera naturala bizi zuen, eta bertako pertsonen sozializazioa eta komunitatearen izate

---

**Esperientzien  
sistematizazioa  
gizarte-  
ikerentzarako  
metodologia bat  
da, Hego  
Ameriketako  
herri-  
hezkuntzaren eta  
gizarte  
garapenerako  
mugimenduen  
inguruan 70eko  
hamarkadan  
sortu zena  
praktika sozialen  
kualifikaziorako  
hausnarketa  
teorikoak  
artikulatzen  
laguntzeko.**

**UEMA, jakina denez, 1991n eratu zen ofizialki, Aizarnazabalen burututako batzarrean. Baina UEMA sortzera bultzatu zuen mugimendua hiru urte lehenago hasi zen, 1988an. Urte horretan Euskal Herrian Euskaraz erakundeak kanpaina bat abiatu zuen udal elebakarren alde, mozio bat aurkeztuz udalerrri euskaldunetako udaletan. Mozioa onartu zuten hainbat udalek elkarren artean koordinatzen hasi ziren eta mozioan esaten zirenak abian jartzeko lehen urratsak ematen.**

kulturala euskaraz sortu, transmititu eta garatzen zen (“bai, gauza naturala zen; euskara oso naturala da herri horietan. Gaur egun ere gure herrietan oso naturalki hitz egiten dugu euskaraz”). Baina, hori horrela izanik ere, herri horietan egoera disfuntzionala gertatzen zen, gizarte bizitzaren arlo ez formalean komunitatearen berezko kultur eta harreman hizkuntza euskara izanik, tokiko administrazio eta zerbitzu publikoen arlo formalean euskara ez ezik, erdara agertzen baitzen hizkuntza hegemonikoa.

Eragileen kontzientzia, kompetentzia eta ekimen-gogo. Lurralde-komunitate horietan bizi zen egoera disfuntzionalaren kontzientzia indartzen joan zen, eta desoreka horren aurrean gerora UEMA izatera iritsiko zen mugimendua gorpuzten hasi zen. Lehen pausuak Euskal Herrian Euskaraz erakundeak eman zituen, zonalde euskaldunetako Udaletara euskara hutsez funtzionatzearen aldeko mozioa onartzeko eskabidea luzatu zuenean. Egindako planteamenduekin ados zegoen hainbat udalek, udalerrri mailako erakunde gisa zuten ahalmen politikoa eta kompetentzia erabiliz, mozioa onartu zuten, eta, mozioa onartu ondoren, zenbaiten artean bertan jasotakoa bideratzeko koordinazio tresnak egituratzeari eta aldaketarako ekinbideak antolatzeari ekin zioten (“eta horrek, sortu genuen mugimendu horrek, jendea tentsionatu zuen, berehalaxe konturatzen hasi ginelako arazorik gabe euskaraz bizi zitekeela. Eta sentimentu hori, euskararen aldeko sentimendu hori zabaldu zen. Beraz bai borondate politikoa, baina baita sentimendua. Eta sentimendu hori ere joan zen indartzen”).

Horrela, hizkuntzaren kontzientzia eta sentimendu sozialak jaso eta egoera disfuntzionalari soluzioa emateko kompetentzia bereganatzerakoan erakutsitako borondate politikoa ekintzarako ekimena bihurtu zuten udal horiek, eta, horrekin guztiarekin, udalerrri mailako lurralde-komunitatearen burujabetza linguistikoa dei genezakeena gauzatzen hasi ziren (“Gu hasi ginen Euskal Herrian Euskaraz mugimenduak deituta, oso gogo handiarekin. Gero, elebakarrarena proposatu zenean, gure udaletxean eta inguruetan, rekuerdoo daukatena da gogo handiarekin hasi ginela lanean, indar handiarekin. Udaletxean foileto eta guztiak erdaraz zeuden, eta kriston ilusioarekin hartu genuen, ‘hau aldatu behar da’ eta bolkatu ginela, eta arazorik gabe gainera”).

Ekimenaren egituratzea. Euskal Herrian Euskaraz erakundeak 1988an aurkeztutako mozioa onartu zuten udalak elkarren artean koordinatzen hasi ziren, Udal Euskaldunak deitu izan zirenen mugimendua sortuz. Hartutako erabakiak betetzeko azpiegitura feta lan teknikoaren beharra antzeman zen berehala, eta horiek bideratzeko Udal Elebakarrek laguntza eskatu zioten Euskal Kulturaren Batzarrea - EKB erakundeari. Erakunde horrek BPZ - Berreuskalduntzearen Planifikaziorako Zerbitzua

sortu zuen, Udal hauek behar zuten zerbitzu tekniko eta juridikoa eskaintzeko. Zerbitzuak hasierako lehen urtetan iraun zuen, geroko UEMAk bere zerbitzu tekniko propioa sortu eta teknikarien kontratuak bere gain hartu zituen arte.

Udalen arten sortutako koordinazio egiturak nortasun juridikorik ez zuenez, motz gelditzen zen eta hainbat arazo formal sortarazten zuen. Horrela, 1991ko maiatzean UEMA-Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea sortzea erabaki zen Aizarnazabalen egindako ekitaldi berezian. UEMAREN erregistroa 1992ko apirilean gauzatu zen, Administrazio Publikorako Ministerioan erregistratzerakoan. Mankomunitatea eratzerakoan bi aspektu azpimarra daitezke:

— *Elebakarretik euskaldunera.* Esan bezala, hasiera batean udalerrri hauek *Udal Elebakarrak* deitu izan ziren, baina gerora eta UEMA sortzeko unean, udalerrri berauek erabaki zuten *Udalerrri Euskaldun* izenpean agertzea (“..hasieran herri elebakarren adierazpena egin bagenuen ere, berehala hasi zen ‘horrek politikoki ez du behar bezala erre-*flejatz*en euskaldunon edo herri-hizkuntza baten erre-*flejoa*. Gainera, elebakarrak ez ginela, ez gara elebakarrak ere, eleaniztunak gara eta orduan ez da egokia, ez goaz ghetitatzera ere, ez gara ghetto bat ere’. Eta orduan, askoz hobeto adierazten duela gure izaera politiko-sozial hori, hobeto adierazten duela genion, herri euskalduna izanik”). ‘Elebakar’ hitza murriztaile eta erraz manipulagarri suertatzen zenez, ez zuela behar bezala agertzen Mankomunitatearen izaera eta xedea, eta horregatik Udal Elebakarrak deituzetik Udalerrri Euskaldunak deitzera pasa ziren: udalean bakarrik ez, udalerrri osoan euskaraz bizi nahi duten Udalerrri Euskaldunak.

— *Mankomunitatea eta ez elkarte.* UEMA sortzeko garaian, egitura Elkarte moduan ala Mankomunitate moduan sortu behar zen sakon aztertu zen. Hasiera batean, bere ezaugarriengatik eta berezitasunengatik, zerbitzuen antolaketa hutsa ez zen neurrian eta hori baino gehiago hizkuntza proiektu bat aurrera ateratzeko egitura zen neurrian, egokiago zirudien Elkartearen forma juridikoa hartzea. Baina, dagoeneko beste Udal Elkarte bat bazegoenez, EUDEL, erakunde berria ez zela inondik ere EUDELen aurka edota alternatiba gisa planteatzen garbi gera zedin eta, garaiko giroa kontuan hartuz, interpretazio eta eztabaida politiko ustelak ez sortzearen, Mankomunitatearen egitura aukeratu zen (“..udalen elkarte bazegoen, orduan elkarte baldin bazen nolabait bikoiztu egiten zuela, eta ez zuen hori nahi, eta orduan bereizteko...”).

**Testuinguru  
soziolinguistikoa.  
Laurogeigarren  
hamarkadan  
hizkuntzen  
egoerak Euskal  
Herriko  
lurrean  
euskararen  
galbiderako  
desoreka-egoera  
argia erakusten  
zuen («oraindik  
ere gainbehera  
doa gure  
hizkuntza...»).**  
**Euskara, berezko  
hizkuntza bada  
ere, oraindik  
menpeko  
agertzen da,  
ordezkatua eta  
minorizatua;  
erdara, berriz,  
hizkuntza  
hegemonikoaren  
posizioa eta  
funtzio nagusiak  
bereganatuak  
ditu.**



**Lehen pausuak  
Euskal Herrian  
Euskaraz  
erakundeak  
eman zituen,  
zonalde  
euskaldunetako  
Udaletara  
euskara hutsez  
funtzionatzearen  
aldeko mozioa  
onartzeko  
eskabidea luzatu  
zuenean.**

*Proiektuaren filosofia eta xedea.* Udalerri euskaldunen mugimenduaren abiapuntuan herri horietan bizi zen egoera anormalari, lehen aipatutako disfuntzioari, buelta ematearen premia zegoen (“..herri euskaldunak erabat, orduan, guztiz arrazoitsua eta beste esplikaziorik behar ez zuena ..., normala ez zena zen bizi ginen bezala, udalean guztiz erdaraz eta herritar guztiei eskutitzak eta erdaraz bidaliz; eta hori ez zen normala”). Herri euskaldunak hala ziren izatez (“de hecho”), eta hala izan nahi zuten eskubidez ere (“de derecho”), osoki eta arlo guztietan.

Zentzu horretan, proiektuaren filosofia hasieratik oinarritu zuen erreferentzia garrantzitsu bat Euskararen Legearen 8.3 artikulua izpiritu izan zen; hau da, Epaitegi Konstituzionalak indargabetu zuen eta euskaldun ziren udalerrietan euskara hutsez funtzionatzeko aukera jasotzen zuen 10/82 Euskararen Legearen 8.3 artikulua, horrela zioena: “.. udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri agintariek, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute”. Horrela, udal horien filosofia aipatu artikulua funtse jaso eta Udal Arautegiaren forma juridikoa emanaz, praktikara eramateko erabakia hartzea eta bidea egitea izan zen. Erabaki horretan, berriz, planteamenduaren filosofia garbi adierazten zuten bi ardatz azpimarratzen ziren:

– Bat, pertsonak errespetatuz euskarak herritar guztien elementu integratzailea izan behar zuela, eta hala izan zedin saiaturko zela Udala. Beraz, integrazioa eta diskriminazioa (“..orduan, hor geneukan % 10-15 edo horrela erdelduna zena .. Hor beti esaten zana edo esaten genduna, ideia zan behintzat, hor % 15 horrek probleman bat baeuken, berak eskubidea zuela erderaz eskatzeko. Orduan bai euskeraz eta erderaz itten zitzaion, orduan ez zen diskriminatzailea. Ez zuen jartzen % 100 euskeraz ingo dotzugu eta zu hor konpon, ez, hori argi ipintzen zuen lehenengotik”).

– Bigarrena, epe bat finkatzen zela udal-administrazioko zerbitzuak ordenantza horietara xedatzen zenera egokitzako. Beraz, prozesu mailakatua eta epekatua.

Adierazgarri dira bi puntu horiek, bertan azaltzen baita nola ulertzen zen prozesua: integratzailea eta epekatua. Herri horietan ez zen inor baztertua geldituko, alderantziz, euskara tresna ezin hobea izango zen hurbiltzen zen guztia bertan integratzeko. Gainera, erabaki horiekin ez zen dena bat-batean irauliko, epeak markatzen ziren erabakitakoak progresiboki prozesu leun eta gehitzaile baten buruan gauzatzeko.

Filosofia hori oinarri, udalerrri euskaldunen mugimenduaren xede nagusiak hiru ardatz nagusiren inguruan definitu ziren:


1. Disfuntzio egoera gainditzearekin zer ikusia zuen ardatza. Hau da, bertako komunitatearen berezko euskarazko izate kulturalaren eta herritarrek herri mailako espazio formaletan erdaraz jardun behar izatearen arteko bretxa gainditzea (“..euskara oso naturala da herri horietan .. , baina bizi ginen egoera ez zen normala ta naturala”). Eta bide horretan, herri horietan euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea eta erdarek betetzen zituzten funtzio formalak ere euskararako bereganatzea. Ardatz horri *Herrien Barne Trinkotzearen* ardatza dei dakiok.
2. Euskaraz naturalki eta osoki biziko zen lur-gune bat egituratzearekin zer ikusia zuen ardatza. Hau da, udalerrri euskaldun guztien artean euskara nagusi izango zuen lur-gunea eratzea (“..euskarak lurralde bat behar zuela, lurralde bat euskara hutsean biziko zena euskerak iraun behar baldin bazuen. Alde horretatik, kontutan izan zen herri euskaldunek esfuertzo hori, lan hori egin behar genuela. Eta lurralde hori ahalik eta gehien zabaltzen joan, bestela hizkuntza difuminatuta gelditzen dalako..”). Lur-gune bat, bertako hizkuntzaren sorkuntza eta baliakuntza naturalari eta hedatze funtzional erabateko eta orekatuari esker, erreferentziala bihurtuko litzatekeena Euskal Herrian maila globalean agertzen den desoreka linguistikoari kontrapisu bat jartzeko eta normalizazio orokorrari laguntzeko. Ardatz horri *Herrien arteko Lurralde-sarearen Trinkotzearen* ardatza dei dakiok.
3. Garapen sozio-ekonomikoarekin zer ikusia duen ardatza. Hau da, udalerrri euskaldunek herri gisa sozialki bizirik jarrai dezaten, herri horien garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea. Ardatz horri *Herriak Ahalmentzearen* ardatza dei dakiok.

Horrela, eta une hartan kontzeptu hauek erabili ez bazituzten ere, esan dezakegu udalerrri euskaldunek euren burujabetza linguistikoa gauzatzerakoan, UEMA mankomunitatea egituratu eta aipatu hiru xede-ardatzak landuz udalerrri euskaldunek osatzen duten *Arnasgune* (Zalbide, 2009) linguistiko kulturalen lurralde-sarea osatzeari eta ahalmentzeari ekin ziotela.

---

**1991ko  
maiatzean  
UEMA –  
Udalerrri  
Euskaldunen  
Mankomunitatea  
sortzea erabaki  
zen  
Aizarnazabalen  
egindako ekitaldi  
berezian.  
UEMAren  
erregistroa  
1992ko apirilean  
gauzatu zen,  
Administrazio  
Publikorako  
Ministerioan  
erregistratzerakoan.  
Mankomunitatea  
eratzekoan bi  
aspektu  
azpimarra  
daitezke.**

1. irudia: UEMaren jatorria, izaera eta funtzioa



2.2 UEMaren Ibilbidea

UEMaren ibilbidea gorabeheratsua eta hainbatetan konplikatua izan da. Hogei urteko ibilbide horretan lan asko egin da eta, zalantzarik gabe, erakundea sendotzen joan da, 1991ean zena eta 2011an izatera iritsi zena ez da gauza bera.


Gogoeta prozesuan UEMako teknikariek in egindako ibilbidearen sistematizazioarako analisisian, eta aurrera azaltzen den sistematizazioaren eskema zabalean ikus daitekeen moduan, UEMaren 20 urteko ibilbide horretan izan diren aspektu nagusien datuek eta informazioa jaso dira modu eskematikoan, hala nola: epealdi bakoitzean lehendakari izandakoen izenak eta herriak, UEMako kide diren herrien altak eta bajak, ekipo teknikoaren bilakaera, bideratutako egitasmo nagusiak, tarte horretan izan diren gertaera esanguratsuak, eta ibilbidean bereiz daitezkeen fase nagusiak, eta guztia denboran kokatuz.

*Lehendakariak.* Hogei urtetan eta 2011ra bitartean, UEMak 6 lehendakari izan zituen. Lehena, Alzoko *Antton Iztueta* izan zen, 1991tik 1995era. Bigarrena, Leitzako *Mikel Ilarra*, 1995etik 1999a arte. Hirugarrena,

Bermeoko *Kontxi Gabatxo* 1999tik 2003 arte. Hurrengo epealdian, 2003tik 2006a bitartean, bi lehendakari izan ziren, Lekeitioko *Jose Mari Cazalis* eta Ondarruko *Miren Urresti*. Jarraian, eta 2006-2007ko tarte laburrean, berriro *Kontxi Gabatxo* aritu zen. Azkenik, 2007-2011ko legegaldian, Aulestiko *Jon Bollar* izan zen UEMAko lehendakari. Euren jatorriari dagokionez, bat gipuzkoarra da, bat nafarra eta beste lauak bizkaitarrak.

*Ekipo teknikoa*. Hasierako lehen urtetan, UEMAk ez zuen bere zerbitzu tekniko propioa izan, Euskal Kulturaren Batzarrea-EKB erakundearekin kontratatutako BPZ zerbitzua erabili zuen. Gerora, 1998an, UEMAk teknikarien kontratuak bere gain hartu eta bere egitura teknikoa propioa sortu zuen. Hasieran bi langile izan baziren, 2000. urtean jauzi handia eman zuen eta 2 langile izatetik 5 izatera pasa zen ekipo teknikoa, hau da, bikoiztu baino gehiago, % 250ko hazkundera. Hazkunde hori lotuta dago urte horietan UEMAko kide izatera pasa ziren herrien gorakadarekin eta egitasmoen arloan abiatu ziren lan eta ildoen areagotzearekin. Teknikari batek adierazi moduan “..erakundearen hazkunderak langile gehiagoren premia ekarri zuen, baina, pertsona gehiago egoteak aldi berean ekarri zuen proiektu gehiago bideratzea ere”. 2003an beste bi langile kontratatu ziren eta zazpi izatera iritsi ziren (% 350ko hazkundera ekipo teknikoan 1999-2003ko legegaldian), eta, horretaz gain, beste hiru langile aritu ziren lanaldi mugatuarekin proiektu espezifikokoak bideratzen. Hurrengo legegaldian gutxiagotu egin zen ekipo teknikoa osatzen zuen langile kopurua eta bost izatera pasa ziren. Azterketa honek jasotzen duen azken legegaldian, berriz, taldea indartu egin zen berriro Nafarroako herrien ardura duen teknikari berriarekin, eta sei izatera pasa ziren.

## 2. irudia: UEMAREN jatorria, izaera eta funtzioa




**Proiektuaren filosofia hasieratik oinarritu zuen erreferentzia garrantzitsu bat Euskararen Legearen 8.3 artikulua izan zen; hau da, Epaitegi Konstituzionalak indargabetu zuen eta euskaldun ziren udalerrietan euskara hutsez funtzionatzeko aukera jasotzen zuen 10/82 Euskararen Legearen 8.3 artikulua, horrela zioena: “... udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri agintariak, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute”.**

**UEMAren  
ibilbidea  
gorabeheratsua  
eta hainbatetan  
konplikatua izan  
da. Hogei urteko  
ibilbide horretan  
lan asko egin da  
eta, zalantzarik  
gabe, erakundea  
sendotzen joan  
da, 1991ean zena  
eta 2011an  
izatera iritsi zena  
ez da gauza bera.**

Aipatzekoa da 2010ean gertatu zen Iñaki Arregi UEMAko langile eta koordinatzailearen gaixotasuna eta heriotza. Iñaki Arregi hasiera hasieratik egon zen UEMAn eta funtsezko rola bete zuen erakundearen garapenean. Bere galerak eragin handia izan zuen UEMAren barruko funtzionamenduan, beste langile batek esan moduan “..Iñakirenak bi fase markatu ditu UEMAn: Iñakirena eta Iñaki ostea, sorreratik Iñaki gaixotu arte, eta ondorengoa. Bera zen UEMAko pertsona erreferentea”.

*Herrien bilakaera.* UEMAren bilakaera azaltzen duen datu garrantzitsu bat UEMAko partaide diren herrien kopurua eta bilakaera da. Urte guzti horietan 76 udal izan dira UEMAko kide. Horietatik 16k (% 21,1), uneren batean baja eman eta kide izateari utzi zioten; hau da, inoiz partaide izan diren udalen bostenak utzi egin du. Baja horretarako arrazoi ezberdinak agertu izan dira, kasu batzuetan epai baten ondorioz behartuak izan dira, beste batzuetan beren borondatez arazo ekonomikoak edo antzekoak direla medio, beste zenbait kasutan berriz, erabaki politikoa dei genezakeenaren ondorioz utzi dute. Hori horrela, UEMA osatzen duten herrien partaidetzaren bilakaera positiboa izan dira legealdiz legealdi, ondoko grafikoan ikus daitekeen moduan. Lehen legealdian, 91-95 bitartekoan, 24 herri izatera iritsi ziren, kopuru hori emendatzen joan zen eta 2007-2011ko legealdian UEMAko partaide ziren herrien kopurua 60ra iritsi zen.


3. irudia: UEMAren herriak, bilakaera



EDB - Euskararen Datu Basearen arabera, Hego Euskal Herrian 140 bat udalerrri daude biztanleen % 70 baino gehiago euskaldun dituztenak, hau da, udalerrri euskaldun gisa kontsidera daitezkeenak. Horrek esan nahi du, UEMAko partaide izan zitezkeen udalen euskaldunen % 42,9 dela egun bertako kide, eta beste % 57,1 oraindik ez.

2011ean UEMAko kide ziren herrien kokapenari dagokionez, eta ehunekoetan azalduta, Arabakoa zen bat, %2 suposatzen duena. Nafarroa eta Bizkaia antzera zebiltzan, UEMA osatzen zuten herrien %20 Nafarroan kokatua zegoen eta %22 Bizkaian. Gehiengoa berriz, % 56, Gipuzkoan zegoen kokatua.

#### 4. irudia: UEMAko herrien kokapena




*Bideratutako egitasmoak.* Ugariak izan dira hogeit hamar urte horietan UEMAk bideratu dituen egitasmoak eta lan-ildoak. Lehen urtetan egindakoak nagusiki udal barruko datu bilketak, hizkuntza eskakizunak eta hasierako erabilera planak lantzearekin zer ikusia zuten, nahiz eta laster abiatu ziren herri mailako beste ekimen batzuk, hala nola *Kultur Elejira* UEMAko herrietako artistekin edota *Merkataritzak Kanpainak*. 1999ko legegaldian, lehen aipatutako hazkundearekin batera, egitasmoen gorakada nabarmena ezagutu zuen UEMAk: planen ugaritzea AEBMET metodologia aplikatuaz, trebakuntzak eta alfabetatzeak, espediente ereduak lanketak, komunikazioa eta irudiaren berrikuntza, Iparraldean elkarlana Konfederazioarekin, merkataritza eta kultur kanpaina berriak, .. etab. Gerora beste batzuk etorri ziren, hala nola, ekintza planak eta herri txiki-txiki-txiki plan egokituak, EBPNn sartzea, alfabetatzeak herrietan, hizkuntza irizpideen dekalogoaren lanketa edota etorkinen integratziorako *Etorri barriak* programa eta *Auzoko* bezalako egitasmoak.

**Teknikari batek adierazi moduan «...erakundearen hazkundeak langile gehiagoren premia ekarri zuen, baina, pertsona gehiago egoteak aldi berean ekarri zuen proiektu gehiago bideratzea ere». 2003an beste bi langile kontratatatu ziren eta zazpi izatera iritsi.**

Egitasmo horiek guztiak sailka ditzakegu eta kokatu, ondorengo irudian ikus daitekeen moduan, honako kategoria hauetan: *Hizkuntza politika, Esku-hartzea udaletan, Esku-hartzea herrietan, Elkarlana, Formazioa, Baliabideak, Eragintza eta Komunikazioa.*

#### 5. irudia: UEMAK bideratutako egitasmoak



*Faseak UEMAREN bilakaeran.* Teknikariek egindako sistematizaziorako analisiaren arabera, UEMAREN hogei urtetako bilakaeran hainbat fase bereiz daitezke. Fase horiek, hala ere, ezberdin ikusten dira analisia plano teknikoan oinarritua egin ala plano politikoan oinarritua egin.

Plano teknikoaren enfokeari erreparatuz gero, lau fase berezitu dira egindako analisia: 1) *Oinarriak*, 2) *Enfoke teknikoa*, 3) *Sendotzea eta espezializazioa*, eta 4) *Nora eza*. Lehenak gutxi gora behera 1991tik 1997ra bitarteko tartea hartuko luke, hasierako fasea da *Oinarriak* finkatzearen fasea, lehen gogoetak eta helburuak finkatzearena eta lehen datuak jaso eta lanak abiatzearen unea. Bigarrenak 1997tik 2000 arteko tartea hartuko luke, gauzatze fasea eta erabilera planak sortzearen tartea da, *Enfoke teknikoa* eta metodologia jakin bat aplikatuz planetan zentratutakoa. Hirugarrenak 2000tik 2005a arteko tartea hartuko luke, UEMAREN hazkundearen fasea da, teknikari kopurua areagotu egiten da eta horrek ekartzen du erakundea *Sendotzea eta espezializazioa* teknikarientzako eginkizunetan, administrazio alorrean ez ezik udalerrietako beste arloetara

zuzendutako esku-hartzeak, gerora ekintza planak, indartu eta ugaritu egiten dira. Azken fasea 2005etik 2010era, norabide garbi bat ez edukitzearen fasea izan zen, egitasmoek jarraitzen zuten eta berriak ere abiatzen ziren, ekintza planak areagotzen ziren herri txikietan, erabilera planak udal sartu berrietan, EBPNn sartzen zen, etorkinei zuzendutako programak burutzen ziren, etab., Aldi berean nolabaiteko estankamendua ere antzematen zen, herri batzuetan aurrera egin eta goia jo zutelako, eta zer gehiago egin garbi ez zegoelako, beste herri batzuetan, berriz, aurrera egin ezinik zebiltzalako. Oro har, beraz, fase honetan erakundea indartsu egon arren eta lanean gogor jardun arren, ipar baten falta sumatzen ze, *Nora eza* sentitzen zen.

Plano politikoaren enfokeari erreparatuz gero, lau fase orokor berezitu dira egindako analisian: 1) *Funtsezko adostasuna - Lankidetzeta*, 2) *Ilegalizazioaren gatazka eta ezintasun politikoa*, eta 3) *Sosegua*. Lehena proiektua abian jartzearen eta lehen urratsak ematearen fasea izan zen. Fase honetan UEMAk planteatzen zuen proiektuaren inguruan, gehiago ala gutxiago, *Funtsezko adostasuna* agertzen zen UEMA osatzen zuten udaletako alderdien artean. Fase hori asko markatu zuen estatuarekin izandako arazo juridikoak. Baina horren aurrean, proiektuan sinesten zuten pertsonen, udal ordezkari politikoen arteko lankidetzeta nabarmentzen zen. Fase honen amaieran, bestalde, azpimarratzekoa da Lizarra-Garaziko akordioarekin gizartean sortutako euforia politikoa eta alderdi abertzaleen arteko adostasun maila, horrek ondorio positiboak izan baitzituen UEMAREN garapen eta hazkundean. Bigarren fasea, *Gatazkaren eta Ezintasun politikoen* fasea izan zen. Batetik estatuak bideratu zuen ezker abertzalearen aurkako ilegalizazioaren gatazka politikoa gertatu zen, bestetik, UEMAREN zuzendaritza organoetan barne gatazka sortu zen. Kudeaketa eta gidaritza politikoen falta eta ezintasun politikoa nabaritu ziren. UEMAREN agerpen publikoak proiektuarekin lotuak baino liskar politiko eta gatazkarekin lotuak agertzen zen. Horrekin batera, urte horietan euskalgintzaren eta beste hainbat euskal erakunderen aurkako erasoak gertatu ziren, eta horrek UEMAKo langileen artean bere lana beldur handiz bizitzea ekarri zuen, horrek egunerokotasunean duen eragin negatiboarekin. Hirugarren fasea, berriz, *Soseguaren* fasea izan zen. Ilegalizazioaren gatazkaren eragina UEMAKo zuzendaritza organoetan baretu zen. Bestalde, UEMAREN hasierako proiektuarekin engaiatutako sektore politikoak hartu zuen zuzendaritzaren ardura, gatazka giroa desagertu egin zen eta zuzendaritza organoetara lasaitasuna eta sosegua itzuli zen. Proiektua berriro zentratu zela esan daiteke.

---

**UEMAREN  
hasierako  
proiektuarekin  
engaiatutako  
sektore  
politikoak hartu  
zuen  
zuzendaritzaren  
ardura, gatazka  
giroa desagertu  
egin zen eta  
zuzendaritza  
organoetara  
lasaitasuna eta  
sosegua itzuli  
zen. Proiektua  
berriro zentratu  
zela esan daiteke.**





*Ibilbidean izandako hutsuneak eta lorpenak.* Hogei urtetan UEMAK lan asko eta bide luzea egin du. Aipatu moduan, bide horretan eta lan-ildo ugari jorratu eta egitasmo anitz gauzatu ditu. Egindako lanak emaitzak izan ditu, lorpenak izan dira, baita hutsuneak ere. Bileretan eta elkarriketetan jasotakoaren arabera, hauek dira identifikatu diren hutsune aipagarrienak eta erdietsi diren lorpen nagusiak:

### *Lorpen nagusiak*

Dokumentu honen hasieran azaltzen den moduan, udalerrri euskaldunen mugimenduaren xede nagusiak hiru ardatz nagusiren inguruan definitu ziren. Ardatz horiei erreferentzia egiten badiegu, zera esan dezakegu:

1. Herri horietan gertatzen zen disfuntzio egoera gainditzeari dagokionez, lorpenak nabariak eta esanguratsuak izan dira.

— Udalak. UEMArekin lanean jardun duten Udalen funtzionamenduan urrats erabakigarriak eman dira, eta hainbatetan jada udalaren funtzionamendu formala (aktak, espedienteak, iragarpenak, bandoak ...) eta herritarrekiko harremanak guztiz euskaraz izatera iritsi da. Kontuan hartu behar da abiapuntua zela *“beren jarduna erabat erdaraz zuten udalak, jardun idatzian behintzat, % 100 erdaraz”* eta orain, berriz, udal askoren *“funtzionamendua guztiz euskaldundu da”*. Adierazgarria da, esate baterako, Kontseiluaren *“Udalen Hizkuntza-politika Rankinga”* ren lehen lau postuetan dauden udalak UEMAKo partaide direla edo izan direla. Eta horiek udal handiak dira, emaitza hau askoz nabariagoa da hainbat udalerrri txikitan.

— Gainontzeko arlo publikoak. UEMAREN jardunak eragina izan du herrietako gizarte bizitzaren bestelako arlo publikoetan, eta urratsak eman dira bertako merkataritzan, jatetxeetan, kultur ekimenetan, ...

— Kontzientzia. Galdeketari erantzun dion hainbat zinegotziren ustez, UEMAREN planteamenduak eta egindako lanak, hautetsien artean euskararen aldeko sentsibilizazioa handitzea ekarri du. Hautetsiek eta udal langileek euskaraz funtzionatzearen garrantziaz kontzientziazatzen lagundu du eta horretarako bidea erakutsi du (*“...aurretik inork ez zuen pentsatzen hizkuntza eskubideetan, ez zitzaion garrantzirik ematen hizkuntzari, duela urte batzuk bigarren mailako kontua zen euskara, eta ez dut esango orain dagokion garrantzia ematen zaionik, baina agerikoa da aurrerapauso nabarmenak egin direla. Bestalde, herritarrak sentsibilizatzen ere lagundu du”*).

---

**UEMAREkin lanean jardun duten Udalen funtzionamenduan urrats erabakigarriak eman dira, eta hainbatetan jada udalaren funtzionamendu formala (aktak, espedienteak, iragarpenak, bandoak ...) eta herritarrekiko harremanak guztiz euskaraz izatera iritsi da.**

**Euskaraz lan  
egin eta bizi  
daitekeela,  
«posible dela  
euskara hutsean  
lan egitea eta  
gainera herri  
horretako  
erdaldunen kexa  
barik, haiei ere  
zerbitzua emanaz  
euren  
hizkuntzan,  
UEMAren aukera  
baliagarria dela  
eta aurrerakoia».  
Eta herri  
txikietan bezala,  
herri handietan  
ere funtzionatu  
duela.**

— Egin daiteke. UEMA barruko udalen jardunak erakutsi du euskaraz lan egin eta bizi daitekeela, “*posible dela euskara hutsean lan egitea eta gainera herri horretako erdaldunen kexa barik, haiei ere zerbitzua emanaz euren hizkuntzan, UEMAren aukera baliagarria dela eta aurrerakoia*”. Eta herri txikietan bezala, herri handietan ere funtzionatu duela, “*herri batzuk txikiak dira, baina beste batzuk ez txikiak ere badaude eta agian herri txikietan lortzen dena % 100 da, baina herri handietarako ere formula baliagarria da, azken finean euskaldunekin euskaraz funtzionatzen duzu eta hala eskatzen duenarekin bietan bidaltzen diegu. Adibidez gure udalean, igortzen duzu euskaraz eta ez dakienak edo nahi duenak eska dezake eta orduan bi hizkuntzatan ematen zaio, lehenetsi euskara eta gero gaztelera*”. Eta udalean bezala beste arloetan ere, “*gurea bezalako herrietan posible da bizitzaren arlo gehienetan euskaraz funtzionatzea, normaltasun dezentez eta naturaltasunez*”. Jasotako erantzunetan pertzepzio orokorra da normaltasun hori, “*euskara normaltasun osoz lan eta zerbitzu hizkuntza izatea. Herritarrek normaltasun osoz hartu dute udal administrazioaren hizkuntza euskara izatea*”. Ez hori bakarrik, zenbaiten ustez herritarren aldetik aldeko jarrera izateaz gain, udalak hartutako erabakiarekin nolabaiteko harrotasun sentimendua ere antzematen da: “*herritarrek pozik hartu zuten erabakia eta nik uste harro daudela udalerrri euskalduna delako eta euskaraz izaten ditugulako harremanak udalarekin*”, “*oro har aldeko jarrera dagoela uste dut, baita harrotasun puntu bat ere, kasu batzuetan*”. Horrek guztiak, bestalde, badu bestelako eragin bat, hizkuntzari prestigioa eta kategoria ematen dion neurrian.

— Prestigioa. Jasotako erantzunen arabera, UEMAren jardunak eragina izan du oso garrantzitsua den beste aspektu batean, hau da, hizkuntzaren prestigio sozialaren aspektuan. Esandakoen arabera, UEMAren bidez egindako lanak “*seriotasuna eman dio euskara munduari udal administrazioan eta bertako agente garrantzitsuenetarikoa bilakatu da*”. Horrek udalaren “*izaera euskaldunari kategoria*” eman dio, eta hizkuntzarekiko pertzepzioan euskararen prestigioa indartzea ekarri du (“*..euskararen prestigioak gora egin du nabarmen*”, “*..eta hori zelan? Lan-hizkuntza euskara izanda, erabilera arrunteko hizkuntza euskara izanda udal barruan*”).

— Burujabetza. UEMAko udalerriek hartzen duten erabakiarekin eta bideratzen duten prozesuarekin, hizkuntzaren alorrean burujabe izan nahi dutela erakusten dute. Estatuaren aldetik urtetan jasan diren helegiteak eta oztopoak handiak izan dira,

eta UEMAre jarduna baldintzatu dute hainbatetan, baina emandako soluzioen bidez eta hartu izan diren erabakiekien “*le-gearen babesik ez izan arren, herriei euskara hutsean funtziona dezaketela erakutsi die*”. Horrela euren burujabetza linguistikoa gauzatu.

2. Euskaraz naturalki eta osoki biziko zen lur-gune bat egituratzeari dagokionez, lorpen aipagarriak izan dira.

— Lurralde-sarea. UEMAk, mankomunitate gisa sortutako azpiegiturarekin eta bideratutako jardunekin, udalerri euskaldunen arteko sarea egituratzeko berebiziko urratsak eman ditu (“*UEMAk kezka eta ekimenak partekatzeko gune bat ekarri dio udalari*”), eta bertara bildutako 60 udalerrik barnebiltzen duten lurralde-sarearen bitartez, naturalki eta tokiko funtzio-espazio guztietan euskaraz sortu eta garatzen den komunitate kontziente eta aktiboaren eremua osatze bidean jarri da. Esan behar da hala ere, eremu hori ez dela oraindik erabat trinkotu, eta ez duela lurralde baten konfigurazioa bereganatu.

— Arnasguneak. UEMAk udalerri euskaldunek euskararen beraren biziraupenerako, biziberritzerako eta erabateko normalizaziorako duten garrantziaz jabetzen lagundu du (“*gune horien gatik ez balitz, euskara askoz ahulago egongo litzateke eta euskararen kalitatea kaxkarragoa izango litzateke. Nik uste dut UEMAk herriak eta oro har herri euskaldunak direla euskararen bermea biharko Euskal Herriarentzat*”). Udalerri euskaldunak hizkuntzaren arnasmune gisa kontsideratzen hasi dira eta UEMAk osatzen duen lurralde-sarea erreferentziala bihurtu da erabat (“*euskaraz bizi den udalerri erreferentziazko adibidea da, batez ere gertuko herriarentzat. Bizikidetzaren eredu ere bagarelakoan nago. Euskararen garapenaren katalizatzaileak izan gaitzeko*”). UEMA sostengua izan da arnasmune horien eremua babesteko, trinkotzeko eta garatzeko: “*gure herria berez da arnasmune bat, eta Udalaren helburua hori horrela mantentzea da; ildo horretatik, udalak ezinbestekoa duen babesa eta laguntza eskaintzen dizkigu UEMAk*”.

3. Herri horien garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzeari dagokionez, berriz, lorpenak ez dira hain nabarmenak izan. Arlo sozio-ekonomikoan egindakoa, zerbait egin bada ere, anekdotikoa izan dela esan daiteke, ez da arlo honetan sakontzeko modua izan. Arlo sozio-kulturalean egindako gehiago izan da, azpimarratzekoa *Kultur Elejira*, herri hauetako artistei eta kultur sortzaileei sarea eta aktuaziorako plazak eskainiz, herri hauetako sor-

---

**UEMAk,  
mankomunitate  
gisa sortutako  
azpiegiturarekin  
eta bideratutako  
jardunekin,  
udalerri  
euskaldunen  
arteko sarea  
egituratzeko  
berebiziko  
urratsak eman  
ditu**

**Herri horien  
garapen sozio-  
ekonomikoa eta  
soziokulturala  
bultzatzeari  
dagokionez,  
berriz, lorpenak  
ez dira hain  
nabarmenak  
izan.**

kuntza eta bizitza indartzeko eman duen aukera.

4. Aurrekoaz gain, elkarriketetan aipatu diren beste lorpen batzuk izan dira:

— Zerbitzua. UEMAk udal askori bestela edukiko ez lukeen euskararen arloko zerbitzu eta laguntza tekniko eskaini die. Horri esker, udal barruko erabilera planak, EBPNko planak, hornitzaileekiko harremanak, udal-langileen trebakuntza, eta udalez kanpoko beste hainbat programa bideratu ahal izan dira. Zenbait kasutan gainera, gestionatutako laguntzen bidez UEMAk dirua lortzeko ere balio izan die hainbat herri txikiei.

— Aitzindaritzza. UEMA aitzindaria edo lehenetarikoa izan da ekimen askotan: erabilera planak egiten, Jaurlaritzaren programak bideratzen, etorkin etorri berrien harrerarako lanketan, herri txikietako kulturaren hedapenaren ikuspegian, ...

— Hizkuntza argia. Hasieratik bideratutako administrazio hizkera erraza eta argiaren filosofia eta egindako lana trebakuntzan eta aplikazioan.

— Norabidea markatzea. UEMAk udalerrri euskaldunentzako gida argia izan da, egungo GPSa, eta nolabaiteko iparra eta norabidea markatu die (*“UEMAk iparra markatu du, euskaraz bizitzea sinesgarri eta lorgarri bilakatzen lagundu du”*).

— Ametsa. Teknikariak egindako analisisian jasotakoaren arabera, UEMAk *“engantxatu”* egiten du, *“topatzen duzulako foro bat benetan laguntzen dizuna”*. Erakunde administratibo bat da, baina proiektu bat ere bai, ideia bat, amets bat, *“eta horrek egiten du erakargarri”*. Beren esanetan UEMAk militantzia kutsua du, filosofia bat dauka atzean eta horrek *“erakundeko partaide sentiarazten du”*.

*Arazo edo hutsune aipagarrienak:*

Egindako lanak asko izan dira eta erdietsitako lorpenak ere ugari, ikusi dugun moduan; baina hogeitako bide horretan izan dira ere hutsuneak edota arazoak. Aipagarrienen artean honako hauek:

- Sozializatzen ez asmatzea. UEMA zer den, zer nolako funtzioa betetzen duen udalerrri euskaldunen lurralde-sarea osatzerakoan, ze lanak egiten dituen eta zer nolako lorpenak erdiesten dituen sozializatzen ez jakitea edo asmatzea (*“herriz herri hori egiten ez dugu asmatu jendea helarazten, jende gehienak ez daki zer den UEMA eta beren herria UEMAn dagoenik ere, hortan ez dugu asmatu, hutsegite larrietakoa hori izan da”*). Plano teknikoan lan handia egin da eta

udaletan hasierako egoeratik gaur arte aurrerapen handiak eman dira, baina “ez da jakin hori saltzen edo jendeari horren berri ematen”, ez eta arlo politikoan hori azaltzen: “ez da asmatu lurgune euskaldunaren ideia hori sozializatzen eta horren aldeko atxikimenduak lortzen esparru politiko zabalean”.

- Gatazka politikoa. UEMAren baitan esparru politiko ezberdinen arteko gatazka izatera iritsi den barne lehia politikoa egon da une batean. Kooperazio planteamendua baino, konpetentziarenak gailendu dira, eta horrek ondorio negatiboak izan ditu proiektuaren garapenean eta eguneroko lanean. Zinegotzi batek dioen moduan “banderizoen guduxken irudia gailendu da mankomunitatearen inguruan; UEMAk, badakit esatea dela errazena, horren gainetik kokatu beharko luke, politikokeriak gainditu, ahal den heinean”.

- Estatuaren eraso. Bi planotan, lehenik UEMaren estatutuen eta udalek onartutako euskara ordenantzen aurka helegiteak sartu izan dituenean, horrek proiektua oztopatu eta moteldu egin izan du eta erantzunak eta soluzioak bilatzen energia asko desbideratu behar izatea ekarri du. Bigarrenik, ezker abertzalea ilegalizatu egin duenean, horren ondorioz sektore politiko oso bati udaletan parte hartze normala eragotzi egin zaio eta barne tentsioak eta gatazkek areagotzea ekarri du.

- Zerbitzu izaeraren gehiegizko pisua. Bere ibilbidean, oinarrizko ikuspegia eta xedeak zabaltzearekin batera, UEMAk normalkuntzarako zerbitzuak eskaintzen eta garatzen joan da gero eta gehiago. Horrek arrisku bat sortu du UEMA zer den interpretatzerakoan zenbait kasutan zerbitzuak eskaintzen dituen bulego tekniko huts gisa ulertzera iritsi denean, bere oinarrizko filosofia eta xedea ahaztuz (“nire ustez UEMA osatzen dugun herrietako hautetsi askok ez dute argi zer den UEMA eta zertarako nahi duten, batzuek euskara zerbitzu soil gisa ikusten dute, baina hori ez da mankomunitatearen zeregina”). Horrela, esate baterako, bere normaltze prozesuan goai jo duten udalen kasuan, gertatzen da zenbaitek jada ez ikustea UEMAren beharra: UEMA normalizaziorako zerbitzu gisa ikusten bada, eta normalizazioa erdietsi bada, orduan ez da UEMAren beharra ikusten. Eta agian ahaztu egin da Udalerri horrek normalizazio orokorrari begira bete dezakeen funtzioa eta antzeko beste udalerri batzuekin batera lurralde-sarea osatzeak eduki dezakeen garrantzia.

- Ez dago UEMako kideztza gestionatzeko protokoloa. Aurrekoarekin lotuta, UEMako kide izatea zer esan nahi duen *Hizkuntza Irizpide*

---

**UEMA zer den,  
zer nolako  
funtzioa betetzen  
duen udalerri  
euskaldunen  
lurralde-sarea  
osatzerakoan, ze  
lanak egiten  
dituen eta zer  
nolako lorpenak  
erdiesten dituen  
sozializatzen ez  
jakitea edo  
asmatzea.**

**AMIA  
metodologia  
aplikatuz,  
UEMAren uneko  
horretako  
indarguneak,  
ahuleziak,  
aukerak eta  
mehatxuak  
identifikatu eta  
garrantziaren  
arabera sailkatu  
ziren.**

eta *Dekalogo* batean jasota badago ere, herri bat UEMAn sartzerakoan ez dago Udalak sinatu beharko lituzkeen hizkuntza irizpideetan oinarritutako protokolo moduko bat. Halaber, ez dago ezta ere hizkuntza irizpideak beteko ez dituen udal bati UEMATik baja emateko prozedura nolakoa izan behar duen. Hori ez izatearen arriskua izan daiteke oinarritzko xedeak eta filosofia bigarren mailan gelditzea, zerbitzu izaera gailentzea hainbat udal ordezkariaren pertzepzioan, edota udal batzuen funtzionamendu okerrak UEMAren desprestigioa ekartzea.

### 2.3 Egoera: UEMA erakundearen AMIA analisisa

Azterketa egin zen unean UEMAren egoera zein zen ezagutu eta definitzeko analisisa egin zen teknikariek eta zuzendaritzako kideekin. AMIA metodologia aplikatuz, UEMAren uneko horretako *indarguneak*, *ahuleziak*, *aukerak* eta *mehatxuak* identifikatu eta garrantziaren arabera sailkatu ziren, ondoren agertzen den taulan zehazki jasotzen den moduan.

*Indargune* nagusi bezala aipatzen ziren UEMAren eremu eta herri kopuru zabala, euskararekiko sentsibilizazio maila altua, herrietan euskaraz egiteko ohitura, langileen inplikazioa, diskurtsoaren indarra eta ideia berriak.

*Ahulezien* artean azpimarratzen ziren diskurtsoa saltzeko ezintasuna, alderdi guztiek bat ez egitea, baliabideen eskasia, politikoen inplikazio falta, lan antolaketan nora eza eta ikuspegi estrategikoaren gabezia.

*Aukeretan*, berriz, hauek agertzen ziren nagusiki: etor zitekeen fase politiko berria, euskararen aldeko eragileekin elkarlana, giro politiko berria, UEMAren proiektu estrategikoan konbentzimendua, eta hurrengo hauteskunde osteko politiko “freskoak”.

*Mehatxuei* dagokienez, azkenik, honako hauek azpimarratzen ziren: kalean erabilera gutxituz joatea, adostasun politiko ezarekin jarraitzea, hurrengo udal ordezkariak ‘epelagoak’ izatea, Jaurlaritzarekiko ‘morrantzak’ eta herritar askok UEMA ez ezagutzea.

Ondoko taulan agertzen dira zehaztuta eta zuzendaritzaren eta bulego teknikoaren analisiak bereizita, egoerari buruzko interpretazioaren atal bakoitzean gehien aipatutako lehen hiru aspektu nagusiak.

**1. taula: UEMAREN AMIA ANALISIA**

Zuzendaritzaren analisia	Bulego Teknikoaren analisia
<p><b>Indarquneak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ UEMAK eremu zabala hartzen du eta herri kopurua gorantz doa</li> <li>▪ Badaudenen euskararekiko sentsibilizazio maila altua</li> <li>▪ Gure udaletan euskaraz lan egiteko ohitura</li> </ul>	<p><b>Indarquneak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Langileek UEMArengan, bere filosofian eta helburuengan sinesten dute eta inplikakuta daude</li> <li>▪ Hizkuntzari buruzko diskurtso indartsua, eraginkorra, etorkizunez betea</li> <li>▪ Ideia berriak egon badaudela</li> </ul>
<p><b>Ahuleziak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Gure diskurtsoa "saltzeko" ezintasuna. Helburuak, ideiak, ... UEMA zer den helarazteko ezintasuna</li> <li>– Alderdi guztiek bat ez egitea UEMArekin</li> <li>– Baliabide eskasia. Urrats berriak emateko diru falta (teknikari gehiago, dedikazio politikoa ..)</li> </ul>	<p><b>Ahuleziak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Politikoen herentzia, Atzetik datoriena. Politikoen inplikazio falta</li> <li>2. Lan antolaketa, funtzionamenduan nora eza</li> <li>3. Ikuspegi estrategiko baten gabezia: nora goaz?</li> </ol>
<p><b>Aukerak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Etor daitekeen fase politiko berria</li> <li>▪ Euskararen aldeko eragileekin elkarlana</li> <li>▪ "Elebitasunaren" diskurtsoa finkatuta. Geurea saltzeko ez gara zerotik hasten</li> </ul>	<p><b>Aukerak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Sortzen ari den giro politikoa. Lehen bezala alderdi abertzale guztiak biltzen duen gunea izan ahal izatea UEMA</li> <li>2. Euskararen biziraupena bermatzeko UEMAK proiektu estrategikoa izan behar duela dugun konbentzimendua</li> <li>3. Maiatzean politiko berri 'fresxkoak'</li> </ol>
<p><b>Mehatxuak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Kalean euskararen erabilera gutxituz joatea</li> <li>– Adostasun politiko ezarekin, borroka partidista antzuetan, jarraitzea</li> <li>– Kanpotik datozkigun alde horiekiko hizkuntza politikan ez asmatzea</li> </ul>	<p><b>Mehatxuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Une jakin bakoitzeko egoera politikoak sor ditzakeen gorabeherak. Maiatzetik aurrera politiko berriak 'epelagoak' izatea.</li> <li>2. Jaurlaritzaterekiko 'morrontza'</li> <li>3. Herritar askok ez du UEMA ezagutzen, ez dugu komunikatzen jakin</li> </ol>

**UEMAK egin duen ibilbidea eta azterketaren unean bizi zuen egoera aztertu ostean, etorkizunera begira zer nolako proiektzioa egiten duen ere aztertu eta jaso nahi izan zen.**

**2.4 Etorkizunerako Proiektzioa**

UEMAK egin duen ibilbidea eta azterketaren unean bizi zuen egoera aztertu ostean, etorkizunera begira zer nolako proiektzioa egiten duen ere aztertu eta jaso nahi izan zen. Egindako galdeketa eta elkarrizketetan etorkizunerako ildo nagusiei buruz jaso diren erantzunak atera eta kategorizatu egin ziren; ondoren, ildoiei buruzko kategoria horiek eta aurreko ataletan agertu zirenak kontuan hartuz, UEMAREN hurrengo legegintzaldi-epealdirako izan zitekeen plangintza estrategikorako oinarria jarri nahi izan zen. Elkarrizketa eta galdeketa jasotako erantzunetatik UEMAREN etorkizunari buruz kategorizatu ziren proposamenak honako hauek dira:



---

**Udalerri  
euskaldunek  
arnasgune gisa  
duten lekua eta  
garrantzia  
ikustarazteko, eta  
UEMAren  
funtzioa eta  
lanak  
sozializatzeko  
lan egin.**

- *Udalerri Euskaldunak Arnasgune gisa kontsideratu.*
  - “Normalizazioak aurrera egingo badu, ezinbestekoa da arnasguneen garapen iraunkorra bermatzea”.
  - “Argi dago, gure ustez, euskararen normalizazioa bilatzen duen ezein hizkuntza-politikek arnasguneei izaera estrategikoa aitortu behar liekeela. Izaera estrategiko horrek gunee horiek babesteko neurriak hartzean izan beharko luke itzulpena. Biodibertsitatea mantentzeko zenbait guneri duten balio ekologikoarengatik babesa eskaintzen zaion bezala, arnasguneei kultura eta hizkuntza-aniztasuna mantentzeko babes-gune izaera aitortu beharko litzaiekeela iruditzen zaigu”.
- *Arnasguneen garapen orekatua babesteko duen lege-arautegiaren alde lan egin.*
  - “Bide horretan, gunee horien oreka linguistikoa eragina izan dezakeen ezein esku-hartze eragozteko neurriak hartu behar lirateke. Horrela, gunee horien inguruan egin litezkeen edozein motatako plangintzak: errepideetakoak, etxebizitzetakoak,... izango luketen eragin soziolinguistikoa inguruko berriarazko ikerketa garatu beharko lirateke”.
  - “Eustearekin ez da nahikoa eta gaur egungo legediak ez nahikoak izanik, euskararentzat eta Euskal Herriarentzat legedi berria eskatu eta lortzeko borroka egin behar du. Udalerrin osoan atzera bueltarik gabe, inoren esku hartzerik eta oztoporik gabe, euskara hutsez bizi ahal izateko bitarteko guztiak jarri behar ditu”.
- *UEMAk Arnasguneen sustapenerako lan egin.*
  - “Gure ustez arnasguneen garapena eskualde, herri edo auzoez harago zabaldu beharko litzateke. Horrela, ulertzen dugu, euskara nagusi den gunee sozio-funtzionalak ere (lantoki, elkarte, ikastetxe...) arnasgune tratamendua izan behar luketela. Bide horretan, UEMA bezala, horiek ere eremuka antolatzen eta erakundetzen joan beharko litzateke. Antolatze eta erakundetze horretan, gure ustez, UEMAk paper aktiboa izan beharko luke. Gainontzeko arnasguneekin harremanak izan eta euren gogoetak partekatu behar litzukete. Bide hori segita, gure ustez, arnasguneen inguruan ondorengo zeregin nagusiak garatu beharko lirateke:
    - Arnasguneak babestea lortzeko lan egitea.
    - Arnasguneak saretzea eta elkar-harremanetan jartzea.
    - Arnasgune berriak eratzea, antolatzea eta erakundetzea.
    - Euskararen normalkuntzaren ikuspegitik arnasguneek

duten garrantzia eta izaera estrategikoa zabaltzeko lan egitea.

– Arnasguneen inguruko ikerketa, bai eta euren inguruan egiten diren mota desberdinetako esku-hartzeen inguruan ikerketa bultzatzea”.

- *UEMAren izatekoa eta funtzioak eraberritu eta zehatu eta zentralitatea irabazi.*

— “Nire ustez, UEMA osatzen dugun herrietako hautetsi askok ez dute argi zer den UEMA eta zertarako nahi duten. Batzuek euskara zerbitzu soil gisa ikusten dute, baina hori ez da mankomunitatearen zeregina. Helburu argiak markatzea eta funtzioak zehaztea ezinbestekoa dela iruditzen zait, zer norabidetan jo behar dugun jakiteko eta indarrak inplementatzeko”.

— “UEMAk askoz toki zentralagoa beharko lukeela iruditzen zait geroko Euskal Herriaren konfigurazio politikoa. Euskalgintzaren ‘ahizpa pobrea’ izateari utzi behar dio eta lortu beharko luke erakunde sendo bihurtzea, aurrekontu eta bitarteko nahikoz hornitua, eta proiektio publiko zabalarekin”.

— “UEMAk euskararen aldeko borrokan geroz eta gehiago eragiten jarraitu behar du. Euskal Herriarentzat eta bereziki euskalgintzarentzat, eredu eta ardatza izan behar du”.

— “UEMA indartu eta zabaldu egin behar da, barrutik eta kanpotik trinkotu. UEMA zer den eta zertarako sortu zen birgogoratu eta ezagutzera eman”.

— “Funtsezkoak izango dira euskara biziberritzeko zein gizarte kohesiorako. Hizkuntza politiketan garrantzia handiagoa hartu beharko lukete udalerrri euskaldunek, eta oro har, bide erakusle diren eragile guztiak”.

- *UEMAAn elkarlanerako adostasun politikoaren alde lan egin*

— “Agian falta zaio alderdi abertzale guztietara iristea eta “consensus” bat lortzea euskaldun eta abertzale sentitzen garen guztion artean. Baina horren errua, nire ustez, ezin zaio UEMARI bota”.

— “Banderizoen guduxken irudia gailentzen da mankomunitatearen inguruan; UEMAK (badakit esatea dela errazena) alderdien gainetik kokatu beharko luke, politikokeriak gainditu, ahal den heinean”.

— “UEMARI falta izan zaiona apolitiko izatea izan da”.

— “UEMA, denok dakigu bi ikuspuntu ezberdin daudela honi buruz, eta horren isla egungo egoera, hainbat udalerrri kanpo-

---

**Beste Udal eta  
gizarte-  
eragileekin  
kooperazio-sare  
soziala ehundu.**

---

**Berezko gizarte  
bizitasunaren eta  
sorkuntzaren  
alde lan egin.**

raturik (legea dela medio edo euren borondatea dela..). Eta era-kunde honi dagokiona ezarri dakioke beste hainbati ere, azken batean, “polítika” deitzen diogun estrategia ezberdinen Ondorica. Nahiago nuke hau guztia bukatzear dagoela pentsatzea eta abertzale guztiok bat eginik UEMA indartsu bat bultzatu eta garatuko dugula sinestea”.

— “PNV gero eta indartsuago ikusten da indar abertzaleen artean eta horko zuzendaritzan ez dut ikusten abertzale eta euskaltzaleen indar eta apoio handirik euskal kontuei. Horko jendea konbentzitzen eta horiekin harremanak hobetzen saiatu beharko genuke, euskararentzat indar handia izango litzateke-elako”.

— “Administrazio(ar)en babesa ere lagungarria da, indar asko galtzen da barne gatazketan; erdietsi beharreko beste kontu bat”.

— “Ezin dugu ahaztu, EAJk UEMA utzi ondoren, egoera politikoak UEMAREN etorkizuna baldintza dezakeela”

— “Kontsentsu zabalagoak bildu, kolore politiko guztietako udalak sarera elkartu, eta udalerrien arteko benetako elkarte moduan funtzionatu behar luke”.

- *Udalerri euskaldunek arnasmune gisa duten lekua eta garrantzia ikustarazteko, eta UEMAREN funtzioa eta lanak sozializatzeko lan egin.*

— “Egindakoa eta lortutakoa “saltzen” ere jakin behar dugu. Maiz, UEMAREN “garaipenak” oharkabean pasatzen diren sententzioa bizi dut. Marketin kontua?”.

— “Ez dakit zein neurritan den UEMAREN beraren kulpaz, baina ez du asmatu lurgune euskaldunaren ideia hori sozializatzen eta horren aldeko atxikimenduak lortzen esparru politiko zabal-tan”.

— “UEMAk presentzia handiagoa izan beharko lukeela kalean, herritarren artean, udalentsat eta udal-ordezkarientzat ez bezala, bai baitirudi herritarrentzat urruneko zerbait dela”.

— “Euskaren normalizazioak bizi duen “teknifikazioak” ere hausnarketa merezi duelakoan nago; ez dezagun gure hizkuntza teknikarien kontu soiltzat aurkeztu”.

— “Komunikazio egoki eta iraunkorra abian jarri behar da. Borroka ideologiko txukun bat egin behar da. Euskararen aurkako eraso bat ere ez da erantzunik gabe gelditu behar”.

- *UEMA osatzen duten Udalerrien sarea areagotu.*

— “Udal/herri euskaldunen inplikazio handiagoa”.

— “UEMA<sup>n</sup> ez dauden gainontzeko udalerrri euskaldunak erakartzea falta zaio”.

— “UEMA<sup>ri</sup> dagokionez lortzen ez badu udalerrri gehiago inplikatzeko bere etorkizuna oso mugatua izango da”.

— “Baldintzak betetzen dituzten udalerrri ahalik eta gehien biltzea izan behar luke ardatz estrategikoetako bat, ordenantzak, plangintzak eta ekimen bateratuak landuz eta indarrean sartuz. UEMA<sup>n</sup> zenbat eta sentsibilitate politiko gehiago egon, zenbat eta udalerrri mota ezberdin gehiago egon, orduan eta indartsuagoa, zabalagoa eta eraginkorragoa izango da”.

- *Beste Udal eta gizarte-eragileekin kooperazio-sare soziala ehundu.*

— “Euskal Herriko eta herri bakoitzeko eragile guztiekin harreman dinamika zabala abian jarri beharko da. Hausnarketa sakon bat egin eta egitekoak elkarrekin bateratuz, aurrera begira, lan eta borroka dinamikari heldu behar zaio”.

— “Harremanak indartu eta euskararen aldeko ofentsiba politiko iraunkorra adostu, dispartzioarekin amaitu egin behar da. Euskal Herriko egitura desberdinetako eragile anitzekin euskaraz bizitzeko hitzarmenak sinatu eta jarraipen batzordea sortu”.

— “Euskal Herri euskaldunaren norabidean, UEMA eta Euskal Herriko gainerako udalerrien arteko osagarritasuna indartu behar da: udalerrri denetan Euskal Herri euskaldunaren aurrerabidea bermatuko duen hizkuntza politika aplikatu behar da eta”.

— “UEMA<sup>ko</sup> baldintzak betetzen ez dituzten udaletan aurre-erapausoak eman daitezen eragiteko gaitasuna behar luke. Eudel eta NUKF-ekin elkarlanean garatu beharko litzateke lan ardatz hori. Kontuan hartu behar da baldintzak betetzen ez dituzten udalerrietan bizi direla euskal hiztun gehienak eta euskal herritar gehienak”.

- *Berezko gizarte bizitasunaren eta sorkuntzaren alde lan egin.*

— “Esan nahi dut, une baten ez dela nahikoa erdaraz dagoena euskaraz eskaintzea, erdaraz ez dagoena eskaini behar dugula euskaraz”.

- *Hizkuntza aniztasuna abiapuntu, eta arnasmuneen garapen orekatua xede, etorkinen euskararako integrazio-bideetan sakondu.*

— “Azken urteotan gure herrietara kanpotik etortzen ari zaigun jende andanak, batez ere Hego Amerikatik datozkigunek, eragin zuzena du(te) gure herrietako bi hizkuntzen erabileran, gaztelaniaren alde. Gai honek gogoeta sakona eskatzen du, eta

---

**Hizkuntza  
aniztasuna  
abiapuntu, eta  
arnasmuneen  
garapen orekatua  
xede, etorkinen  
euskararako  
integrazio-  
bideetan  
sakondu.**

**UEMAren funtzioa eta ibilbidea ez da soilik hizkuntzaren normalizazioaren parametroetatik aztertu behar, hori baino gehiago ere ba da, herri hauetan egiten ari den lana gizarte berrikuntzaren eta dinamizazioaren parametroetan koka baitaiteke. Horrela, gizarte berrikuntzaren kontzeptuak komunitatearen indartzearen ikuspuntutik (Azkarraga et.al., 2012) ezaugarri hauek dituela ulertzen bada, ondoriozta daiteke UEMAK sustatzen duen udalerri euskaldunen mugimendua gizarte berrikuntzaren bidetik doala eta, zentzu horretan, euskal gizarte orokorrari ere ekarpen nabarmena egiten diola, hizkuntzaren ikuspuntutik bezala, berrikuntzaren gizarte garapeneren ikuspuntutik ere.**

adostuko ditugun neurrietan asmatzea, eta gero gerotan geratu gabe ekitea, alegia gaiari lehenbailehen heldzea. Zerbait egin da, lehen ere, baina ez da nahikoa noski”.

### 3. LABURBILDUZ

#### I

Euskal Herrian badira hainbat udalerri soziolinguistikoki euskaldun gisa definitzen direnak. Udalerrri horiek euskararen gune soziokultural naturalak dira, baina egoera disfuntzionala pairatu izan dute erdaren eraginpean eta hainbat arlo formaletan erdarak hizkuntza hegemonikoaren lekua bereganatu izan du.

Hori horrela, 80. hamarkadan egoera horrekiko kontzientzia eta sentimendu indartsu bat kaleratzen joan zen, udalerrri mailan zegoen konpetentzia sozial eta politikoaz jabetuz joan zena eta ekimenak bideratuz burujabetza linguistikorako bidea egiten hasi zena. Horrela Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea eratu zen, egoera disfuntzionalak gainditu asmoz, eta udalerrri euskaldun horiek osatzen duten arnagune linguistiko kulturalaren lurralde-sarea indartzeko eta ahalmentzeko. Udalerrri hauek, globalizazio uniformizantearen aurrean nortasunezko hizkuntza normalizazioaren mugimenduari lagunduko dioten hizkuntzaren energia-iturri naturalak izango direla ulertzen da.

Hogei urteko ibilbidean gorabehera ugari egon da, hutsuneak eta lorpenak, baina egun hizkuntzaren normalizazioaren arloan udalerrri euskaldunak eta UEMA mankomunitatea bera ezinbesteko erreferentzi izatera iritsi dira, euskararen transmisioaren eta biziberritzearen gune bitalak. Zaindu eta beren garapenean indartu beharreko guneak, Eusko Jaurlaritzaren Euskara-21 dokumentuak lehentasunezko ildoak finkatzerakoan zehazten duen moduan: “euskara ohiko hizkuntza izango duten arnagune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belauneko belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko” (Eusko Jaurlaritza, 2009: 50).

Baina UEMAren funtzioa eta ibilbidea ez da soilik hizkuntzaren normalizazioaren parametroetatik aztertu behar, hori baino gehiago ere ba da, herri hauetan egiten ari den lana gizarte berrikuntzaren eta dinamizazioaren parametroetan koka baitaiteke. Horrela, gizarte berrikuntzaren kontzeptuak komunitatearen indartzearen ikuspuntutik (Azkarraga et.al., 2012) ezaugarri hauek —partehartzea, kontzientzia, autokontrola, gizarte ahalmentzea, autogestioa, konpromisioa, inklusibitatea, gaitasunen garapena, identitate soziala...— dituela ulertzen bada, ondoriozta daiteke UEMAK sustatzen duen udalerrri euskaldunen mugimendua gizarte be-

rrikuntzaren bidetik doala eta, zentzu horretan, euskal gizarte orokorrari ere ekarpen nabarmena egiten diola, hizkuntzaren ikuspuntutik bezala, berrikuntzaren gizarte garapenaren ikuspuntutik ere. ●

## **BIBLIOGRAFIA**

- Adger, W. (2000). "Social and ecological resilience: are they related?" *Progress in Human Geography*, 24 (3), 347-364
- Alboan (2004). *Sistematizazioa, gure praktiken gaineko begirada berria. Giza transformazioko esperientziak sistematizatzeko gidaliburua*. Bilbo: Alboan.
- Alboan (2007). *Participación ciudadana y sistematización de experiencias*. Bilbo: Alboan.
- Azkarra, J. et. al. (2012). "Eco-localismos y resiliencia comunitaria frente a la crisis civilizatoria. Las iniciativas de Transición". *Polis Revista Latinoamericana*, 33. <http://polis.revues.org/8400>
- Estrada, V. M. (2005). "Fundamentos epistemológicos, teóricos y metodológicos de la sistematización y la formación profesional en trabajo social." In, Estrada, V.M., Torres, L. eta et al. (arg.), *Miradas sobre la sistematización de experiencias en trabajo social* (14-28 orr.). Cali, Colombia: Universidad del Valle.
- Eusko Jaurlaritz (2009). *Euskara-21. Itun berritu baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Jara, O. (2006). "Sistematización de experiencias y corrientes innovadoras del pensamiento latinoamericano. Una aproximación histórica." *La Piragua. Revista Latinoamericana de Educación y Política*, 23, 7-16.
- PESA. (2004). *Guía metodológica de sistematización*. Honduras: FAO.
- Bickel, A. (2006). "La sistematización participativa para descubrir los sentidos y aprender de nuestras experiencias". *La Piragua. Revista Latinoamericana de Educación y Política*, 23, 17-28.
- Borjas, B. (2003). *Metodología para sistematizar prácticas educativas: Por las ciudades de Italo Calvino*. Caracas: Federación Internacional de Fe y Alegría.
- Bowlby, J. (1992). "Continuité et discontinuité: vulnérabilité et résilience". *Revue Devenir*, 4, 7-31.
- Coppens, F., eta Van de Velde, H. (2005). "Programa de especialización en gestión del desarrollo comunitario". Curso E-DC-6.1.: Sistematización, texto de referencia y de consulta. Estelí, Nicaragua: CURN / CICAP.
- Fernandez, J.L. eta Morán, N. (2012). "Cultivar la resiliencia. Los aportes de la agricultura urbana a las ciudades en transición". *Revista Papales de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 119, 131-143.

- Holling, C.S. (1973). *Resilience and stability of ecological systems*. Pdf dokumentua. <http://www.iiasa.ac.at/Admin/PUB/Documents/RP-73-003.pdf> (2013/09/26an irakurria)
- Nina, A. (2006). *Guía de Sistematización*. El Salvador: GTZ.
- Theis, A. (2003). “La resiliencia en la literatura científica”. In, Manciaux, M. (arg.), *La resiliencia: resistir y rehacerse*. Barcelona: Gedisa.
- Simpson, M.G. (2010). *Resiliencia sociocultural. Del ‘Yo puedo’ al ‘Nosotros podemos’*. Buenos Aires: Ed. Bonum.
- Suarez Ojeda, N.E. (2001). “Una concepción latinoamericana: la resiliencia comunitaria”. In, Melillo, A. eta Suarez Ojeda, N.E. (arg.), *Resiliencia, descubriendo las propias fortalezas*. Buenos Aires: Paidós.
- Zalbide, M. (2009). *Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioretan*. UdalTop, Udaletako euskara-zerbitzuen I. Topaketan irakurritako hitzaldia. <http://www.udaltop.com/historikoa/2009/dokumentazioa/ponentziak/aurrez-aurreko-jardunaren-lekua-hinbe-saioretan> (2012/02/15ean irakurria)